



Piramideak, Bilboko industriare eta ontzigintzaren loraldiaaren ikur baitira, zutik daude oraindik, baina egitura herdoiltzen hasia zaie. MARISOL RAMIREZ / ARGAZKI PRESS

Haurtzaroko oroitzapenen aztarnak

Duela 17 urte itxi zuten Artxandako Jolas Parkea bisitatzeko aukera dute 500 lagunek urrian asteburuetan.

MIKEL CARRAMIÑANA
Bilbo

Bilboko kaleetatik ibiltzean, Artxanda mendira begira eta han goian iku daitezkeen piramide bitxi batzuk zer ote diren galdetu dute askok urteetan. 30 urteren bueltan dauden gehienek berehala erantzun diezaiokete itaunari: Artxandako jolas parkearen aztarnak direla esango dute. Bilbon eta alde meneko herrietan industriaren eta ontzigintzaren loraldia bizi zen 1970ko hamarkadan eta Bizkaiko Aldundiak jolas parkea eraikitzea erabakia hartu zuen, eta handik

gutxira gauzatu. Artxanda mendiko 300.000 metro koadro lur irauli behar izan zituzten lurzorua presatzeko, eta 270 beharginen urtebeteko lanaren ondoren, 1974ko irailaren 14an Bizkaiko Jolas Parea irekizuten. Garai hartako komunikabideek *Irrien hiria* deitu zioten eta arduradunek, urtero, milioi bat bisitari erakartzea espero zuten. Bilbo zerbitzu hiri bilakatzeko lehenengo saioa izan zen hura, baina ezzuen luzaro iraun.

Bizkaiko klima ezduinoiz kaleko ikuskizunekin gozatzeko bermerik eskaini; horregatik akaso, sustatzaleek aurrekuskitalo arrakasta ez zen inoiz izan. Bisitariak, unerik gorenetan, ez ziren inoiz 450.000 baino gehiago izan eta,

Jolas Parkea 1974. urtean ireki zuten, eta Iñigo Urkulluk 1990ean iragari zuen itxiera

errentagarritasuna lortzeko bestelako aukerak bilatu arren, 1990. urtean parkea itxi egin behar izan zuten. Bazkideak zituen basketxeak eta bestelako konpainiak, baina haien bakarrik laga zuten ordurako Aldundia. Iñigo Urkullu EAJko EBBko bozeramailea garai hartan Bizkaiko Foru Aldundiko Gazteria saileko zuzendaria zen, eta hark iragarri zuen itxiera. Atrakzio mekaniko guztiek Portoko (Portugal) jolas parkeari saldu zizkion 50 milioi pezetaren truke (300.000 euro); Artxandako lurzorua bere hartan utzi zuten erakundeek.

Dagoeneko, hamazazpi urte bete dira parkeak ateak itxi zituenean eta, denbora zein naturaren kalteak nabarmenak dira. Hala

Urtean ez ziren 450.000 bisitari baino gehiago inoiz egon, eta atrakzioak Portugalera saldu zituzten



Ikuskizunetarako erabiltzen zen anfiteatroa, gaur egun. MARISOL RAMIREZ / ARGAZKI PRESS

ere, zutik daude aspaldiko eraikin asko, piramideak adibidez, herdoildutako metala erortzen hasia bada ere. Urte hauetan, inork ezdu parkean sartzeko aukerarik izan, segurtasun pribatuak gau eta egunez zaintzen dituelako inguruak. Aldundiak 200.000 euro xahutzen ditu urtean lan horretan.

2005ean, Consonni ekoizpen etxeak nazioarteko zenbait artisten proiektuak Artxandako parkean egiteko baimena eskuratu zuen. Orduan bururatu zitzaien Marta Mur Consonniko egungo zuzendariari herritar askok izan zezakeela parkearen aztarnak ikusteko gogoa. Saioa Olmo artistaren gana jo zuen, ideia azaldu eta egitasmo bat abiatzeko.

ATRAKZIOEN ITZULERIA. Marta Murren eta Saioa Olmoren elkarlanaren esku, Bilboko Jolas Parkea izanda-koa bisitatzea aukera dute urriko asteburuguztietan gidariekin zuzendutako ordu eta erdiko ibilaldietan, izena aldez aurretik eman behar zen, eta berehala bete ziren 480 laguneko zerrenda. Irailean iragarrizutenean proiektua eta, egun gutxitian, espero baino askoz jende gehiagok agertu zien bisitak egiteko interesa. Joan den ostegunean hasi ziren bisitak eta hilaren 28an egingo dute azkena.

Taldeak txikiak dira eta izena eman nahi zuten lagun guztiak ezin izan dira Artxandako parkera joan. Antolatzaleek esan dutenez, 300 baino gehiago gelditu dira kanpoan. Murrek ez du baztertu bisita gehiago antolatzea, baina ez duuste aukera egongo denik: «Gurea ez da zerbitzuak eskaintzen dituen enpresa, eta, edonola ere, laguntzaile berriak beharko genitzke». Dirua ez da, alabaina, oztipo bakkarra, hasierako helburua lortuta, bisitaldiak luzatu beharra ez baitu beharrezkoak ikusten: «Proiektu berrieta daukat burua dagoeneko».

Egitasmoari buruz aztarna garaikideak ere artea izan daitezkeela dio Consonnikoak: «Bilboko itxura garbitzen ari diren garaian, hondakinak aldarrikatzen ditugu guk, nortzuk garen eta nortzuk izan garen azaltzen digutelako, hain zuzen ere». Murren ustez, inork ez du zalantzan jartzen Partenoia artea denik eta bai, aldiz, jolas parke bateko hondakinak ikus-tea merezi duenik. «Artea egiteko ikuskizun handiak eta dirutzak gastatzea ezinbestekoa dela uste dute askok, baina badira beste modu batzuk. Parkea ikuskizunaren sinboloa zen, eta ikur hori irauli egin dugu». Duela bi urte Luna Park izeneko proiektuari ekin zionetik, hamaika aldiz izan da Mur parkeko hondakinetan. Txikitán behin baino gehiagotan izandakoa dela badaki, baina ez du gogoan: «Ikastolakoekin hitz eginda jakin izan dut». Haren ustez, bisitari gehienek nostalgiak bultzatuta egin nahi dute bisita eta, egungo eraikinetatik paseatzen, «bakotzak jakingo du zer hartu gogoan».



Haur batzuk Etxe Sorginduan, Jolas Parkea martxan zegoen garaian. BERRIA

«Paradisua zen guretzat»

Aldundiak gordetzen dituen telefono kabinak eta markesina zaharrak aurkitzen ditu bisitariak

M. CARRAMÍANA

Bilbao

Bizkaiko Jolas Parkea irekizutenean, sarrerak 10 pezeta besterik ez zuen balio (0,06 euro), atrakzio bakoitzean sartzeko gehiago ordaindu behar dute parkera igotzeko, 3 euro; merkeea da kontuan hartuz gero Zazpikaleetatik Artxandara era-mango dituen autobusaren txarte-

rekin, arduradunek sarrera bakkra asmatu zuten, egungo parke gehienetan darabiltena, alegia. Horri esker, umeek atrakzio ia guztietan nahi beste aldiz aritzeko aukera zuten. Txartel bakarrak 500 pezeta balio zuen (3 euro), eta orduko sarrerak daude oraindik bulegoetan utzita. Parkera igotzeko bisitetan izena eman duten guztiek, gaur egun, horixe bera ordaindu behar dute parkera igotzeko, 3 euro; merkeea da kontuan hartuz gero Zazpikaleetatik Artxandara era-mango dituen autobusaren txarte-

la ere jasotzen duela prezio horrek. Parkean, Saio Olmo artistak pres-tatutako ibilbidea egiten dute, hondamendiaren baitan naturak berak sortutako hamar *atrazio* berri ezagutzeko: Atrakzio batuen legebiltzarra, Ihesaldi basatia, Oroitzapenen dorrea, XX. mendeko altzorrak, Galduztako ametsen etxea, Paradisua itsas-bidaia, Txiliotxo izugarrien gotorlekua, Barne oihana eta Ontzi espaziala. Aspaldiko eraikinak besterik ez dira, denborak eraldatu baditu ere, baina parkearen egungo egoera ikus-

teko aitzakia besterik ez dira. Bulegoetatik korrika aterazirela dirudi, eta paperak eta nortasun-agiriak aurki daitezke lurrean botata.

Joan den ostegunean eginko lehenengo bisitan hogeilagunek har-tuztutenean parte eta gehienek, aitor-tu zutenez, txikitán jolas parkean egondakoak ziren. Asier Intxaurga Galdakaotik igotzen zen oinez lagunekin batera, eta zalantzarak ez dauka garai hartan ume batet egin zezakeen gauzarik zoragarriena zela hara joatea: «Paradisua zen guretzat». Atrakzio guztien koka-pena gogoratzen du oraindik, eta kart zirkuituan aritzeko aukerarik ez zuela izan azaldu zuen: «16 urte eduki behar ziren eta nik gogoz gel-ditu nintzen». Consonnik antolatu-tako bisiten berri izan zuenean, ari-neketan eman zuen izena, «berria egunkarian ikusi eta hurrengoegunean». Parkearen egoerari buruz, bestetik uste baino hobeagoa dela esan zuen: «Gutxi bada ere, sumatzen da pixka bat zaindu dutela ur-teotan».

«EGOERA PENAGARRIA». Bizkaiko Foru Aldundiak parkeko zati bat hiriko altzariak eta askotariko gauzak gordetzea erabiltzen du. Bertan, duela hogeitzean erabiltzen ziren kabinak edota autobusetako mar-kesinak aurkitu daitezke, hondaki-nen artean. Mikel Barron bilbo-rrarentzat «penagarria» da parkea horrela ikustea: «Oso txikia nintze-la etorri nintzen, eta, bisita honekin, erabat ahaztuta nituen oroitza-penak berreskuratu ditut». Berarekin batera, anai-arrebak joaten zi-rela azaldu du: «Askotan, kanpotik bisitan etortzen zitzagun senide-ren bat ere bai». Atrakziorik gogo-koena *Ispiluen gelazuen*, baina bes-te asko gogoratzen ditu: «Noria, Errusiako mendia eta trena, ikaragarriak ziren guztiak».



Luna Park egitasmoaren bisitariak, kasko eta guzti, Etxe sorginduan begira. MARISOL RAMIREZ / ARGAZKI PRESS